



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

LARRAULGO PLAN OROKORRA

Larraulgo herri antolatzeko Plan Orokorra idazteko kontratua **SOROA** taldeari esleitu zaiola jakinarazteko bidaltzen dugu idatzi hau.

Aurreko herri bileran agertu genuen bezala, Plan Orokorraren idazketa, guztion partaidetza izan dezan, Larraulgo Udala herri bilerak eta galdaketak egiten hasiko da.

Idatzi honekin batera inkesta bat luzatzen dizuet, lau ataletan banatua: Etxebizitzak, trafikoa, zerbitzuak eta jarduera ekonomikoak. Beste atal batean zuentzako garrantzia izan dezaken gaiak aipatzeko lekua uzten zaizue. Azkenik, tarte bat uzten zaizue etorkizunerako zer motatako herria nahi duzuen hausnarketa egiteko.

Inkesta hau, Udalaren buzoian (eliza atzeko buzoia berdean) sartu, epea maiatzaren 25 arte izango da.

Larraulen, 2010eko maiatzaren 11an
ALKATEA
Xabier Mujika Pagola